



MUSIKA JAIALDIEN ANTOLAKETAREN LEGEZKO ALDERDIEN GIDA EGUNERATUA

Sympathy©
for the Lawyer

SYMPATHYFORTHELAWYER-EK EGINA
2024KO MARTXOA

AURKIBIDEA

01 JAIALDIA EGINGO DEN ESPAZIOA: ESPARRUA

02 EMANALDI KONTRATUA

**03 EKITALDIAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO
EZINBESTEKOAK**

**04 MUSIKA JAIALDI BAT EGITEKO
ADMINISTRAZIO BAIMENAK**

05 ASEGURUAK

06 MUSIKA LANAK: JAIALDIETAKO MUSIKA

07 JATETXEAK

08 JAIALDIEN BABESLETZAK

09 MUSIKA JAIALDIKO TXARTELAK

10 ONDORIOAK

01 ESPARRUA

Musika ekitaldien sustatzaileek zenbait betebeharrak eta erantzukizunak dituzte gainerako eragileekiko, eta funtsezkoa da horiek ezagutu eta behar bezala betetzea. Horregatik, Sympathy For The Lawyer-en gida bat prestatu dugu sustatzaile batek eta, bide batez, musika ekitaldien sorreran parte hartzen duten gainerako eragileek ere, kudeatu behar dituen legezko alderdi guztiak argitzeko, arreta berezia jarrita jaialdi eta kontzertuetan.

Kontuan hartu behar den lehenengo gauza espazioaren alokairua da. Zenbait modutara egin daitezke: espazio pribatu bat alokatuta edo administrazioaren aldetiko espazioaren lagapen bidez, esaterako, hiri bateko udalak lagatako espazio publikoa bada. Horretarako Venue izeneko kontratua sinatu behar da.

Kontratu horretan adierazi behar dira iraupena, espazioa, alderdi bakoitzaren betebeharrak, prezioa, ordainketa epeak, lagatzailearen eta lagapen hartzailearen arteko erantzukizunak ezbehar kasuan eta deuseztapen posibleak.

02 EMANALDI KONTRATUA

Jaialdietako elementurik garrantzitsuena artistekin edo haien izenean negoziatzen duten manager eta management eta/edo booking agentziekin sinatzen diren emanaldi kontratuak dira. Kudeatzen diren lehenengo kontratuak dira eta hortik aurrera hasten da ekitaldia bera zabaltzen. Kontratu horiek gabe ez dago jaialdirik.

02 EMANALDI KONTRATUA

Kontratuaren alderdiak izango dira, alde batetik, ekitaldiaren sustatzailea, jaialdia antolatu eta erantzukizun guztiak bere gain hartzen dituena, eta, bestetik, management eta/edo booking agentzia edo, halakorik ez balego, artista bera. Sustatzailea pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke, edo merkataritza izaerarik gabeko erakunde bat ere, hala nola udalak edo kultur elkarteak.

Kontratu mota honetan, alderdi hauek barne hartzen dituzten klausulak zehaztu behar dira:

- Kontratazioaren objektua: emanaldia, sustapen ekintzak, eskubideak lagatzea.
- Emanaldiaren baldintzak: data, ordutegia, iraupena, artistaren posizioa jaialdiaren kartelean, soinu probak eta muntaketa.
- Ilderdi bakoitzaren berariazko betebeharrak: laneko arriskuen prebentzioa, artistaren segurtasuna sustatzailearen aldetik, nahitaezko aseguruaren kontratua artistaren taldearen aldetik edo lizentzien kudeaketa kudeaketa erakundeen aurrean.
- Rider teknikoa eta hospitality rider-a, sustatzaile eta artistaren artean adostua, negoziazioan alderdi indartsuena denaren arabera.
- Baldintza ekonomikoak: artistaren caché-a, garraioa eta ostatua, production fee tasa eta atxikipen aukerak atzerriko artisten kasuan (artistaren agentziak bere gain hartuko ditu).
- Esklusibitatea: lurraldea, epea eta salbuespenak.
- aialdia edo artistaren emanaldia bertan behera uzteko kasuak: jasotako zenbatekoen itzulera edo mantentzea, kalte eta galeren ordaina, erantzukizunen banaketa sustatzaileari edo artistari egoztekoak diren arrazoiak izatekotan edo ezinbesteko kasuetan.
- Alderdien arteko merkataritza edo lan harremana.
- Lizentzia editorialak eta eskusiba jasotzeak, jaialdia grabatzen bada.

03 EKITALDIAREN SEGURTASUNA

BERMATZEKO EZINBESTEKOAK

Kontuan hartu beharreko hurrengo gauza segurtasun baldintzak dira. Segurtasuna zuzenean kudeatu dezakegu, baina egin beharreko ekintza ia guztiak arlo horretan adituak direnekin azpikontratatu beharko dira. Hauek dira ziurtatu beharreko puntu nagusiak:

- Segurtasun memoria. Enpresa Jardueren Koordinazio (CAE, gaztelaniaz) enpresak autobabeserako plan osagarri bat egin beharko du, teknikari eskudun batek idatzitakoa. Derrigorrezkoa izaten da dagokion autonomia erkidegoaren aurrean. Zenbait autonomia erkidegok horren derrigorrezko erregistroa eskatzen dute.
- Instalazioa behar bezala intsonorizatu dela ziurtatzeko isolamendu akustikoaren akreditazioa.
- Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete izanaren ziurtagiria, elkargokidea den ingeniari teknikari batek idatzia eta CAEk egina.
- Aldi baterako instalazioen memoria eta aldi baterako instalazioen muntaketa ziurtagiria emateko konpromisoa. Dokumentu hauek eszenatokia muntatzeaz arduratuko den enpresak egin beharko ditu eta hor adieraziko dira eszenatokiaren planoa eta instalazioaren sendotasuna ziurtatzeko behar den informazio guztia.
- Ekitaldiaren instalazio elektrikoaz arduratuko den hornitzaileak egindako aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina.
- Zerbitzu medikoak. Zerbitzu mediko pribatuaren kontratazioa, muntaketa hasten denetik ekitaldia amaitu arte indarrean egongo dena. Ekitaldian zehar, bertaratuen kopuruaren arabera, derrigorrezkoa izango da anbulantziak izatea. CAEekin kontsultatu beharko dira anbulantzien kopurua eta mota, ekitaldiaren edukieraren arabera. Horrez gain, ezinbestekoa da kontratatu diren langileen kopurua eta mota egiaztatzen duen osasun akreditazioaren ziurtagiria eskatzea, ikuskapen kasuan agintaritza eskudunari aurkezteko. Tokiko araudia kontsultatu beharko da premia espezifikoak zehazteko.
- Ekitaldiaren sustatzaileak erreklamazio orriak eskura jarri beharko ditu sarreretan/txarteldegian.

04 MUSIKA JAIALDI BAT EGITEKO ADMINISTRAZIO BAIMENAK

Sustatzaileak dagozkion baimenak eskatu beharko ditu, besteak beste, espazioaren lagapen hartzaile den heinean dagozkionak. Oro har, baimen arrunta eskatzen da arrisku areagotzerik ez badago eta ezohiko baimena zenbait faktoreren ondoriozko arrisku areagotzea badago, baina autonomia erkidegoaren arabera alda daiteke.

Gainera, sustatzaileak dagokion udalari jakinarazi beharko dio ekitaldia, noiz egingo den eta ekitaldiaren tamaina zehaztuta, xede hauetarako:

- Poliziaren parte hartzea.
- Alderdi akustikoak.
- Sarbideen balorazioa.
- Aldameneko kaleen pilaketa ekitaldia egin aurretik, ondoren eta bitartean.
- Ekitaldiarekin lotutako garraiobideen aparkalekurako espazio publikoak eta bestelako espazio publikoen erreserbak eskatzea.

Era berean, titulartasun publikokoa den espazioak jarduera horiek egiteko beharrezko baimenak izan beharko ditu, eta baita autobabeserako plan propioa eta bestelako aseguruak ere.

05 ASEGURUAK

Musika ekitaldien sustatzailearentzat funtsezkoa den beste alderdi bat aseguruaren kontratazioa da, bai eta kontratatzen dituen hirugarrenei aseguruak izatea eskatzea ere.

Oro har eta ekitaldia erabat estalita egon dadin, hauek dira kontratatu beharreko aseguruak:

- Erantzukizun zibileko aseguruak. Nahitaezkoa da sustatzailearentzat eta gomendagarria ekitaldian parte hartzen duten eragile guztientzat.
- Erantzukizun zibileko aseguru zabaldua. Nahitaezkoa da sustatzailearentzat zenbait kasu jakinetan.
- Istripu aseguruak. Nahitaezkoa da hornitzaile bakoitzarentzat hitzarmen kolektiboak hala xedatzen badu, eta bereziki egokitutakoa izango da arriskudun lanen kasuan (altuera, manipulazio elektrikoa, etab.).
- Deuseztapen aseguruak. Oso gomendagarria da sustatzailearentzat, ekitaldia edozein arrazoi dela eta bertan behera utzi behar bada.
- Kontingentzia aseguruak. Aurrekoekin estuki lotuta dagoen aseguruak da.
- Edukitzailearen aseguruak. Esparruaren jabeak eraikin/ondasun higiezin osoa estaltzen duen aseguru bat izan beharko du.
- Edukiaren aseguruak. Esparruaren jabeak espazioko elementuak estaltzen dituen aseguru bat izan beharko du.

06 MUSIKA LANAK: JAIALDIETAKO MUSIKA

SGAEren aurreko izapideak

Interpretatuko diren abestien gaineko jabetza intelektualeko eskubideak hainbat egile, editore eta koeditorerenak izan daitezke. Artista batek berak egin eta konposatu ez dituen musika lanak interpretatzea erabaki dezake.

Nolanahi ere, musika lanak zuzenean interpretatuko diren kasu guztietan, sustatzaileak lizentzia eskatu behar die dagozkion kudeaketa erakundeei, kasu honetan, Egile eta Editoreen Elkarteari (SGAE), adierazitako musika lanak interpretatu ahal izateko.

Lizentziaren prezioa hainbat faktoreren arabera da, batez ere saldutako sarrera kopuruaren, sarrera bakoitzaren prezioaren eta sarrera guztien diru sarreren arabera. Horrez gain, deskontu portzentualak izan daitezke elkarte jakinen kide izatekotan.

Jaialdiaren grabaketa

Musika ekitaldien inguruko gauza guztiek interes handia pizten dute ekitaldira ez doazenen artean ere, gizarte sareen bidez, streaming emanaldiekin, artistei egindako elkarrizketekin, argazkiekin, etab. Zehazki, streaming eta/edo telebista bidezko emanaldi horiek dira diskoetxe eta editorialekin kudeatu eta negoziatu behar direnak.

Jaialdia zuzenean emango bada, Lizentzia Editoriala eskatu beharko zaio editorial edo eskubide editorialen titular bakoitzari, eta Esklusiba Jasotze bat interpretatuko den eta emanaldian entzungo den musika lan eta/edo artista bakoitzaren gaineko esklusiba duen diskoetxe bakoitzari.

07 JATETXEAK

Gero eta ohikoagoa da jaialdietan janari eta edari saltokiak izatea. Kasu horietan, erabaki beharko da jatetxe arloan espezializatuta dauden enpresak zuzenean kontratatu edo azpikontratatu nahi diren.

Horretarako, jatetxez arduratzen den enpresak eta sustatzaileak kontratu bat sinatuko dute eta hor adieraziko dira, besteak beste: espazio propioaren kokalekua, merkaturatuko diren produktuak, prezio zehatzak, antolatzaileen aldetiko produktuen aurretiazko onarpena, salmenta ordutegia, bi marken arteko lankidetzak, enpresa adjudikaziodunak kontratatu beharreko aseguruak, ordaina eta epeak, irabazi gordin edo garbien gaineko portzentajeak, esleitutako langileen gutxieneko kualifikazioa, jasangarritasun politikak, langileen jokabide arauak, erantzukizunen banaketa, segurtasun neurriak, kontratu urraketak eta hirugarrenei lagatzeko debekua.

08 JAIALDIEN BABESLETZAK

Merkataritza markek oihartzun publikoa duten musika jaialdi handietan eta artisten kontzertuetan agertzeko interesa izaten dute, bai eszenatokian bertan, pantailetan edo esparru osoan zehar ere, karpa edo bulegoak barne.

Horri legezko estaldura emateko, babesletza kontratu bat sinatu ohi da sustatzailearen eta babeslearen artean. Hor arautzen dira garatuko diren jarduerak, babesletzaren baldintzak, bi marken arteko lankidetzak, enpresa babesleak kontratatuko dituen aseguruak, erantzukizunen banaketa, materialen ekarpena, sortutako edukien gaineko eskubideak, langileak, babesletzaren mugak, babesletza bitartekoak, langileen jokabide arauak, ordaina eta epeak, kontratu urraketak eta hirugarrenei lagatzeko debekua.

09 MUSIKA JAIALDIKO TXARTELAK

Ekitaldira datorren publikoak sarrerak legezko moduan eros ditzan, ticket enpresa bat kontratatu beharko da, sarreren salmentaz arduratzeko. Enpresa horrek irabazien portzentaje bat eskuratuko du.

Oso garrantzitsua da ticket enpresak erabiltzaileen eskura eta, batez ere, ekitaldira etorriko direnen eskura jartzea sarbide baldintzak eta adingabeentzako inprimakiak, betiere datuak babesteko araudia errespetatuta.

Sarbide baldintzetan zehaztuko zaio publikoari sarrerako txartela nola eraman, zerekin sar daitezkeen eta zerekin ez, adingabeen inguruko alderdiak, sarrera ateak, arazo kasuan nora jo, etab.

Adingabeen inprimakiak deskargatu, inprimatu eta sinatu egin beharko dira, adin jakin batetik aurrera, adingabeen sarbidea baimenduta badago, baina legezko tutoreen baimena ere eraman beharko dute. Hori guztia ekitaldia egingo den autonomia erkidegoko eta tokiko araudian zehaztuta dago.

Zenbait kasutan, ticket enpresa izango da kudeaketa erakundeen aurreko izapideak egingo dituen, zuzenean ezagutzen baititu sarreren salmenta baldintzak eta hori ezinbestekoa baita dagokion lizentzia kudeatzeko.

10 ONDORIOAK

Kudeaketa hauek egiteko, kasu bakoitzean adituak diren aholkulariak izatea gomendatzen da, hartara, ezbehar kasuan, alderdi guztiak behar bezala estalita egongo direla eta ekitaldia ongi aterako dela ziurtatuta.

Gida honek izapide eta legezko alderdien inguruko zalantzak argitzeko balio du, baina Sympathy For The Lawyer-ekin harremanetan jar zaitezke ere, konpromisorik gabe, zure kasua aztertzeko.



musikabulegoa.eus

